



Iturria: *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak*, (Rosa Miren Pagola eta taldearen edizioa).  
CD-ROMa, Bilduma osoaren edizio digitala.  
Deustuko Ubibertsitatea / Eusko Jaurlaritza, 2004.

Klasikoen Gordailuan:  
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/D/DuvoisinSolastaldiak.htm>

## ITURRIAGAREN SOLASTALDIAK

**Jean Pierre Duvoisin**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## Lehenbiziko solastaldia

**ANTONIO.** Aintzineko eguneko zure solasak hainitz dostatu ninduen.

**BASILIO.** Atsegin dut jakitea.

**ANTONIO.** Nahi nuke zerbait erran bazineza abere batzuen gainean.

**BASILIO.** Ez da gaitz atsegin hori egitea zuri.

**ANTONIO.** Esker izanen darotzut.

**BASILIO.** Badakizu zer den seda?

**ANTONIO.** Ustez bai; huna hementxe.

**BASILIO.** Bainan badakizu nondik heldu den?

**ANTONIO.** Indietarik naski.

**BASILIO.** Seda izateko, ez Indietara goan beharrik.

**ANTONIO.** Nola! Hurbilgotik heldu da?

**BASILIO.** Hemen berean atzeman diteke. Seda pinpiriña baten lana da.

**ANTONIO.** Pinpiriña baten lana! Othe daiteke?

**BASILIO.** Bai; pinpiriña baten lana.

**ANTONIO.** Erradazu nola egiten duen lan eder hori.

**BASILIO.** Bada pinpiriña mota bat zuria eta lodia. Hunek egiten dituen arroltzetarik atheratzen dira har xehe-xehe batzu. Ordu beretik hasten dira martzoka hosto jaten. Jaten dutenaren arabera, handituz ere dohazi. Erhiaren neurrira heltzen dira berrogoi bat egunik barnean. Orduan abiatzen dira, armiarmak bezala, ahotik heldor botatzen. Botatzen dute beren buruen inguruan arbolen adar artetan. Hunela gelditzen dira zarpa baten barnean. Zarpa hau deitzen da kuskua. Kuskuak ezartzen dira ur irakituan, eta han guritzen dira. Hartzen da zirikuaren izpia, eta kuskuak barraiatuz dohazi beren lekhotik athera gabe. Zirikua bilduz hastalkaian, hastaria egiten da, kuskua barraiatzen denaren arabera.



**ANTONIO.** Nork erran lezake ikhusten diren sedazko soineko ederrak, pinpiriñari zor zaizkola?

**BASILIO.** Kuskuaren barnean diren harrek ezkurra osoki iduri dute.

**ANTONIO.** Hilak ala biziak dira?

**BASILIO.** Hilak gure begietan, bainan, primaderan, atheratzen kusutik pinpiriña bihurturik.

**ANTONIO.** Zer gauza espantagarria!

**BASILIO.** Bi gauza haukietarik, zein zaitzu espantagarriagoa? Berriz phiztea, ala pinpiriña bihurtzea?

**ANTONIO.** Hain harrigarri aurkhitzen dut har bat pinpiriña bilhaka-tzea, nola hil bat berriz phiztea.

**BASILIO.** Egiazki, espantatzeko gauza, egun lurrean herrestaka dabilan harra, bihar hegaldaka, lehen zen baino ederrago ikhustea. Hau ikhusi eta, ez da gaitz sinhestea, egun batez gu ere berriz phizturen garela, aintzinean baino ederragorik. Pinpiriña berri haukiek egiten dituzte arrol-tzeak eta berehala hiltzen dira.

**ANTONIO.** Zer! hunen ephe laburra dute bizitzeko?

**BASILIO.** Bai, eta badira abereak gutiago oraino bizitzen direnak.

**ANTONIO.** Hori hola bada, ez dugu gure biziaren laburtasunaz arranguratzekorik.

## Bigarren solastaldia

**BASILIO.** Egun erleez mintzatu gogo natzaitzu.

**ANTONIO.** Azienda xehetto baliosak dira erleak, haukiek ematen darokute ezta.

**BASILIO.** Ez ezta bakharrik, bainan ezkoa ere ematen darokute.

**ANTONIO.** Nola eztira itsutua bainaiz, ez nintzen orhoitzen ezkoaz.

**BASILIO.** Ezta erremediatako hain ona da, nola janharitako. Marhanta denean hartzen da ezta urarekin nahaste. Midikuek janarazten dute batzuetan, mahainean jarri baino lehen, sabeletik libraraztekotzat. Bertzalde berriz, zenbat gauzetako ez da on ezkoa. Hunekin egiten dira xirioak, onkhailu ezkodunak eta asko manthar mota. Erleak sortzen dira pinpiriñak bezala, eta jaten dute ezta. Loreetan aurkhitzen dute eztiaren eta ezkoaren gaia. Lorearen irinarekin egiten dute ezkoa, eta ezta berriz lorearen golkhotik atheratzen duten gozotik. Gibelego aztaparrez harraskatuz irina biltzen dute lore gainean. Zangarretan badituzte galtxoin iduri batzuek eta ez dira gelditzen hekiek bethe arteraino. Hezetasuna hurrupatzen dute muthurrean duten tronpa batekin. Hezearentzat badute zorro bat, eta han ezti bilhakutzen da. Irinarentzat badute bertze bat, eta han ezko bihurtzen da. Gero, ezkoa ahotik goiti itzultzen duten arabera, breskaren egiten hartzen dira. Breska egin dutenean, orraze-xiloak eztiz bethetzen dituzte.

**ANTONIO.** Xiloa orraze-xiloa deitzen da?

**BASILIO.** Breskarena bai.

**ANTONIO.** Zorutzen darotate burua gauza horiek guziek.

**BASILIO.** Ez da hor burtzoratzekorik.

**ANTONIO.** Zer! Ez othe da zoratzeko dina ikhustea lore hostoko herrautsa ezko bilhakatua?

**BASILIO.** Eta etzaitu zorutzen guk jaten ditugun gauzak gure odol bihurtzen ikhusteak?

**ANTONIO.** Egia diozu, ez nintzen horri ohartzen.

**BASILIO.** Behiak egun jaten duen belharra, bihar esne bihurtua jaten dugu.



## Hirugarren solastaldia

**BASILIO.** Egun errauliaz mintzatu behar gare.

**ANTONIO.** Zuk nahi duzun bezala.

**BASILIO.** Erraulia da uli lerdan, luxe, ferde ederreko bat. Lizarretan gerthatzen da, zeren han ohi dituen egin bere arroltzeak.

**ANTONIO.** Horrek erran nahi du errauliaren harrek lizar hostoa jaten dutela.

**BASILIO.** Bai, pinpiriñen harrek martzoka hostoa bezala. Bainan jakin behar duzu ez edo-zein pinpiriña ez eta edo-zein arbola hosto ez direla onak sedaren emateko. Uli hunekin egiten da mantharra.

**ANTONIO.** Erei ezartzen zaiotena?

**BASILIO.** Bai, huraxe bera. Eritasun gehienetan hura izaten da azken sendakaria. Umoreak dituztenentzat da guziz ona.

**ANTONIO.** Eta nola ematen da sendakari hau?

**BASILIO.** Herrausturik, eta begira nola. Errauliak bildu ondoan, uzten dira hiltzera eta idortzera; eta idortu ondoan, jotzen dira xurrumarteluetan. Herrauts hunekin egiten den mantharrak erretzen du eta jauzarazten ditu phintzak. Zenbatek uli haukiei ez diote zor beren osasuna! Eta zenbatek bizia!

**ANTONIO.** Eta erranen darotazu ez direla horiek zoragarri diren gauzak?

## Laugarren solastaldia

**BASILIO.** Huna non duzun marmutxa bat zuk ezagutzen ez duzuna.

**ANTONIO.** Hemen atzeman duzu?

**BASILIO.** Ez, Ameriketara sortzen da, eta handik ekhartzen dute thindu egiteko. Koxenila deitzen dute.

**ANTONIO.** Bizkitartean koxenila gorria da, eta marmutxa hau hauskara.

**BASILIO.** Kamartza ere ferdea da berenez, bainan egostean gorritzen da. Minagre xorta bat ixurtzen badiozu gainera, ikhusiko duzu nola gorrituko den.

**ANTONIO.** Horren biribil-zabaldua! Ilhar-xabala iduri du. Muthurra du xerriarena bezalakoa.

**BASILIO.** Hargatik deitzen dute erdaraz koxinilla. (xerri ttipia). Bada bertze har bat hau iduria, kermesa deitzen dena. Bainan hark ematen duen thindua arrotagoa da.

Ala bata, ala bertzea arboletan aurkhitzen dira, zeren hekien amek arbolen hostoetan uzten dituzten beren arroltzeak. Haukietarik ilkhitzen dira harrak, zeinek egiten baitituzte kuskulak, berak barnean gelditzen direlarik. Bada bertze thindu gorri bat oraino ederragoa. Purpura deitzen da. Bainan hain da bakhana kausitzen, non hainitz gutik izan ohi baitute. Maxkor baten barnean aurkhitzen da, eta zakhur bati diogu zor.

**ANTONIO.** Zer! Zakhur bati! Nola gerthatu zen hori?

**BASILIO.** Zakhur bat ohi zabilan goseak hila. Goseak eraman zuen itsas bazterrera, eta hasi zen maxkor jaten. Egun oroz harat goan ohi zuen bere gosearen hiltzera. Bihurtzen zen muthurra guzia gorriturik. Norbait, ustez odola zuen eta zerbait sarraski zuelakoan, atzeman zuen. Ikhusi zuen thindua zela, dena odola iduria. Eta horra nola aurkhitu izan zen thindurik ederrena eta garastiena.

**ANTONIO.** Bai, garastia izan behar da, ezen hainitz maxkor beharko da bildu soineko baten thindatzekotzat.

**BASILIO.** Hain da garastia, non erregeek eta handi batzuek bakharrak izan baitezakete. Bertze hainbertze gerthatzen da perlarekin. Itsasoan aurkhitzen da maxkor baten barnean. Horra nola munduko gauzarik baliosenak animale xehetto batzuei zaizkoten zor.

**ANTONIO.** Bai egiazki. Nork erran lezake haukiei zor zaizkotela errege eta erregeen edergailuak!

**BASILIO.** Ez da bertzela gerthatzen elizetako puska ederretan.



## Bortzgarren solastaldia

**BASILIO.** Gauzarik ttipienetan ikhusten da hobekienik Jainkoaren handitasuna. Badakizu naski zer den zigarra. Haurrei ethortzen zaiote erhi artetan.

**ANTONIO.** Bai eta ere nigarra gogotik eginarazten diote gaixoei.

**BASILIO.** Beren amek athera ohi diote iguzkitan orratzaren mokoaz.

**ANTONIO.** Hura iguzkitan ere atheratzeko begi ona izan behar da.

**BASILIO.** Bada, zenbat ttipia izan dadien, zigarrak baditu gorphutza-ren alderdi guziak. Baditu hortzak edo hortz-ordekoak, haurrei nigar eragiten diotenaz geroztik; baditu urdaila, hertzeak, sabela, bihotza, biriak; izan ere behar ditu gibela, barea eta geltxurrinak. Haren odolak gureak bezala ibili behar du gorphutz guzia gaindi.

**ANTONIO.** Ez du bada iduri odolik baduela.

**BASILIO.** Odola xuria duelakotz bertze asko marmutxek bezala.

**ANTONIO.** Ongi diozu gauzarik aphurrenetan dela handienik Jainkoa.

**BASILIO.** Badira marmutxak zigarra ere baino ttipiangoak oraino.

## Seigarren solastaldia

**BASILIO.** Miresten zinduen iragan egunean ikhustez zenbat on diozkategun zor abere xehe batzuei. Seda pinpiriña bati, eta thindurik ederrena eta perlak marxkor zenbaiti. Bada miresgarriagoa da oraino marmutxa batzuek irakhasten darokutena ematen darokutena baino. Erleak goizetik arrats lanean hari dira nihon gelditu gabe. Ez dute jaten egunean eguneko poxia baizik. Badakite negua ethorriko dela, eta orduan beren kofoinetik ezin ilkhiko direla. Hunela irakhasten darokute lanari hotz-ematen ahal dugunean ezin dukegunekotzat, eta dugunean begiratzen ez dukegunekotzat. Hitz batez, irakhasten darokute langile eta zuhur izaten. Lanetik eta zuhurtasunetik heldu dira aberastasuna eta ongi izatea. Lana da berthute guzien ama, eta alferkeria zabarrera guziarena. Guk guziek egin bagineza erleek egiten dutena, bizi gindaiste aingeru batzu bezala.



## Zazpigarren solastaldia

**ANTONIO.** Nahi nuke zerbait jakin xinhaurrien ganean.

**BASILIO.** Bada asko xinhaurri mota, batzuek bertzeak baino xeheagoak dira. Negu guzia lotan iragaiten dute.

**ANTONIO.** Nola ez othe dira hiltzen?

**BASILIO.** Beren goritasunak iraunarazten diote. Hau bera gerthatzen da sugeekin, musarrekin eta bertze asko animaleekin. Zenbat aldiz, eri gaudezinean, ez gare gerorri hilabete osoak deusik hartu gabe egoten! Xinhaurrietan, batzuek dira arrak, bertzeak emeak, eta bertzeak ez arrak etez emeak. Arrak eta emeak ume egitekotzat dira, eta bertzeak laneko. Orobat gerthatzen da erleetan. Hegaldun eta hegats-gabeko marmutzak, pinpiriñak bezala sortzen eta handitzen dira.

**ANTONIO.** Eta xinhaurriak?

**BASILIO.** Orobat.

**ANTONIO.** Bizkitartean xinhaurriek ez dute hegalik.

**BASILIO.** Bai, badituzte sortzen direnean, bainan gero khentzen dituzte gibelesko bi zangoez. Badakizu behin baino gehiagotan etxeak lurrera erorrarazi dituztela? Ez da irrik; erraitera nohakizu nola. Adrailuzko etxeak diren aurkhintzetan, usmatzen badute, jatekorik barnean, huna zer egiten duten. Adrailuen arteko morteroa phorrokatzen dute barnera sartzekotzat. Etor dadiela gero haize buhunba bat, eta etxea badoha lurrera. Badira marmutzak fruituen ganean egiten dituztenak beren arroltzeak. Hekietarik sortzen diren harrak sartzen dira barnera eta jaten dute. Hau bera gerthatzen zaiote arbolen hostoei, bihiari eta soinekoei.

**ANTONIO.** Horrengatik ikhusten dira arbola-hostoak sareak bezala eginak.

**BASILIO.** Eta zer kalteak ez dituzte egiten ogi bihian?

**ANTONIO.** Ogi meten ganean hegaldaka ikhusten diren makaratto-  
etarik ilkhiko dira naski harrak?

**BASILIO.** Bai, eta sartzen dira bihian fruituan bezala. Badira ere uliak zaldi eta bertze abereei sudur-mizpiretarik eta bertze lekhutarik sartzen zaizkotenak.

**ANTONIO.** Eta barnean uzten diozkate arroltzeak?

**BASILIO.** Bai, eta hekietarik atheratzen diren harrek zorarazten dituzte batzuetan. Zaragarra, ezkabia eta bertze asko eritasun ez dira berterik ezen harrak.

**ANTONIO.** Diote bizkitartean zikhinkeriatik heldu direla.

**BASILIO.** Bai, zeren zikhinean sortzen diren harrak. Hargatik behar dira egun oroz garbitu begithartea eta eskuak. Behar da orobat egun oroz orraztatu. Abereek ematen daroskute garbitasunaren etsenplua. Ikhusiko dituzu bethi beren buruen xahutzen hari direla.

**ANTONIO.** Urdeak ez behintzat.

**BASILIO.** Bai, eta urdeak ere; aski da hortako begiratzea hekien khurtxilei. Han beren etzauntza zilharra baino garbiago dagokate. Jainkoak eman diote usna hori, zeren garbitasuna den guziz beharra osasunarentzat.



## Zortzigarren solastaldia

**ANTONIO.** Goan den gau guzian gogoeta egotu naiz gure azken aldiko solasaz.

**BASILIO.** Nola bada! Zer kausitu duzu harrigarrik?

**ANTONIO.** Zaragarra, ezkabia eta bertze gaitz asko zikhintasunetik heldu direla aditzea.

**BASILIO.** Zaragarra eta ezkabia ez dira har mota batzuek bertzerik. Bertze hainbertze diot hortzen eta haginaren artean sortzen den zikhinaz. Har haukiek gehienetan zilhoak egiten dituzte.

**ANTONIO.** Eta nondik heldu dira haurrek izan ohi dituzten zizariak?

**BASILIO.** Janhari eta edariarekin iresten dituzten arroltzetarik. Ulitxa phozoindunak berriz heldu dira ur usteletik. Orobat sugeak, sugekandekak eta zierpeak. Zenbat gaitz ez dira ethortzen phutzu eta aintziretarik! Phutzuak nahi du itzala, ura ustel dadien nahi ez bada; eta barnera botatzen bazaio ikhatza edo ikhatz-herrautsa, ura garbitzen da edan ditekeen bezala. Orobat hainitz ona da zagorra hartara botatzea.

**ANTONIO.** Ikhusten dut zikhinetik eta ustelkeriatik heldu direla nardatzeko diren gauzak eta gaitz asko.

## Bederatzigarren solastaldia

**ANTONIO.** Erradazu: Zer da anilla?

**BASILIO.** Iratzea iduri duen belhar batetik atheratzen den herrauts bat.

**ANTONIO.** Eta nondik heldu dira kotoina, kinkina, kanela eta itze-kanela?

**BASILIO.** Indietarik heldu dira. Kotoina aurkhitzen da zuhamuxka baten kuskuan, gaztaina kharloan bezala; kinkina arbola baten azala da; kanela orobat, eta itze-kanela bertze arbola baten fruitua. Azukrea da khanabera mota bati, xehatu eta egosi ondoan, khentzen zaioen gozoa. Gauza horiek guziak toki beroetan ethortzen dira.

**ANTONIO.** Zorionekoak behar dute izan horrelako tokiek.

**BASILIO.** Badira tokiak zeinetan bethiko primadera batean bizitzen bada. Hunelako tokietan ikhusten dira arbola batean eta denbora berean lorea, fruitu berdea eta onthua. Han, beren baitharik heldu dira laranja, limona eta bertze fruitu batzuek.

**ANTONIO.** Dohatsu halako tokitan bizi direnak! Bizi ditazke deuse-aren ardurarik gabe.

**BASILIO.** Bizkitartean han ere lanean hariz bizi da jendea. Jan hutsarekin ezin bizi gaitezke.

**ANTONIO.** Zergatik ez? Behitzat, ez hotz handirik, ez bero handirik egiten ez badu.

**BASILIO.** Basa-gizonak hala bizi dira. Jakin behar duzu asko lekhitan soineko eskasez, urdeak bezala lohian ihauskatzen direla. Eltzo pozoindek eta bertze asko marmutzek sistatzen dituztelakotz egiten dute hori.



## Hamargarren solastaldia

**BASILIO.** Egun laborantzaz iharduki behar dugu.

**ANTONIO.** Denbora ez da gaizki ezarria izanen, zeren hori baita gure ofizioa.

**BASILIO.** Bada asko lur mota, bainan guziek bietara jotzen dute.

Zein-nahi lurrek badagoka buztin eta legar; legar baino buztin gehiago balinbadu, deitzen da buztin-lurra; eta buztin baino legar gehiago balinbadu, deitzen da legar-lurra.

Buztin-lurrak ez dio urari barnera biderik uzten, eta legar-lurrak berriz dena sartzeraz uzten du.

Ona izatekotzat, lurrak izan behar du hanbat bustin nola legar; ber-  
tzenaz busti bezain laster agortua da.

Lur onak ur hainitz hartzen eta begiratzen du; eta azala idortuz diho-  
akonaren arabera, ura ere azpitik gora iganez dihoako.

Hau bera gerthatzen da mitxan igaiten den olioarekin.

Hunelako lur motak aski ditu primaderako uriak uda guzikotzat.

Gisuak hainitz ungi phorrotzen du buztin-lurra.

Ongarria da gero gauza beharra lurrak eman dezantzat.

Ongarri izatekotzat, behar da abere, eta abere izatekotzat behar da bazka.

Haina da lur-gizonik hoberena, zeinak bihia eta bazka bazter berean  
altxatzen baititu.

Hau da gure herri-aldean ikhusten dena.

Aziendak behar du etzauntza, eta etzauntzarentzat ihaurlakia behar  
da.

Ihaurlakia ez den lekhuetan, ezartzen da legar idorra; eta legar ido-  
rrik ez bada, galtzada egiten da.

Aziendak behar du guzien-gainetik garbitasun handia, eta iduki  
behar da, ahalaz, begien aintzinean, zeren den izipera eta beldurrak ahul-  
tzen baitu.

Hainitz lakhet du hatz eta balaku egin dakioen.

Maiz eman behar zaio jatera, eta guti aldian; bertzela higüntza har-  
tzen du eta ez du ongi ehaiten jana.

## Hamekagarren solastaldia

**ANTONIO.** Azken aldiko solasari jarraikitzeaz egidazu othoi atsegi-  
na.

**BASILIO.** Atsegin handirekin aintzina jarraikiko natzaio, ikhusten  
dudanaz geroz etzaitudala unhatzen.

Lurrak barnean baditu asko gozo mota.

Landare bakhotxak nahi du berea; bainan bethi landare mota bera  
ematen bazaio lur bati, txartuz goanen da aldi bakhotxean.

**ANTONIO.** Hori jakina da, zeren alditik aldira gozo gutiago emanen  
baitu.

**BASILIO.** Horrengatik eman behar zaio lur berria edo ongarria; ber-  
tzenaz aldatuz eman behar zaio orai landare mota bat, gero bertze bat.

Badira belharrak elkarrekin ongi heldu direnak, eta badira elkharrak  
kalte egiten dioetenak.

Bi belhar mota ongi izan ditazke lur berean, baldin gozo berezak  
behar badituzte; bainan ez, baldin gozo-bera galdegiten badute.

Abereak ez du puskarik ongarri egiteko on ez denik.

Azkazala, hezurra, adarra, ilea, guziak arras on dira ongarritako.

Gisu-harria nasai den tokian, laborari onak atzeman guzia labera  
botatu behar du.

Gisu pixka batekin nahasiz, guziak ongarri bilhakutzen dira.

Hartara botatu behar dira zapata zahar, hiliki eta puska tzar guziak.

Badira merla-harriak gisu hainitz dagokatenak, eta buztin-lurrentzat  
hainitz onak direnak.

Gisua dagokaten ala ez, minagrean puxka bat ezarritz ezagutzen da.

Minagreak irakitzen badu edo botatzen baditu punpuilak, gisua  
badagokala ageri da.

Hautsa da onkhailu hoberenatarik bat; bainan hauts hainitz egiteko-  
tzat, errekin hainitz behar da.

Lur zelhaiak onak dira laborantzako; zeren, berenez txarrak balira  
ere, laborari onak onthuko baititu; bada hekiei ematen den guzia han  
bereal gelditzen da.

Aldapa-lurretan landatu behar dira arbolak.

Lur gutik, ongi lanthua delarik, hainitzek gaizki lanthua denean  
baino gehiago ematen du.

Ongi lanthua izatekotzat, lurrak behar du izan herrauts egina.

Urthe berean hainitz bihi mota erain behar da, biltze baten eskasean,  
bertze bat harrapa dadiantzat.

Horrengatik da errana eraitza mota bat baizen ez duenak batere ez  
duela.





## Hamabigarren solastaldia

**BASILIO.** Egun abereez mintzatu behar gare, zuk hala nahi baduzu.

**ANTONIO.** Atsegin handirekin entzunen ditut zuk erran nahiko daroztatzun guziak.

**BASILIO.** Aziendak galdegiten du garbitasun handia.

Jatera eman behar zaio maiz eta guti aldian.

Animaleak gu bezala dira.

Hobe da garbi iduki detzagun, gutixago jatera emanen bazaiote ere.

Izanen dira gizenago, hazkarrago eta osasun hobekoak.

**ANTONIO.** Batzuetan azienda hantzen da, ez da hala?

**BASILIO.** Bai, hantzen da belhar bustia jaten duenean.

Horra hori gerthatzen denekotzat errezetak.

### ERREZETA ERRAN DEN GAITZARENTZAT

Amoniakaren izpiritua, untza bat.

Petrol olioa, bi untza: Nahasteka.

### BERTZEA

Harrarazten zaio abereari untza laurden erdi bat jenziana erro herrausturik.

Belhar berotua aziendarentzat hobea da; hala nola prentsan irakitu arnoa, irakitu-gabea baino hobea baita; eta gustu hobea duelakotz, aziendak gogo hobearekin jaten du. Hori bera dela medio, hainitz hobeki ehaiten du.

Asko lekhotan, belharra bildu-eta ihintzaten dute, tinkatzen dute eta gero uzten.

Berotzen hasten denean, zabaltzen dute eta aziendari ematen.

Abereari gatza hainitz lakhet zaio, eta guti batek on hainitz egiten dio; zeren gatzarekilako jana hainitz hobekiago ehaiten baita, eta gatza jaten duen aberearen haragiak hainitzez gustu hobea du.

Hau ezagutzen da nitre-gatza den aurkhintzetan alhatzen diren zik-hiroen haragian.

Guziz eman behar zaio gatza eritzen den aziendari.

## Hamahirugarren solastaldia

**ANTONIO.** Ezin erran dezakezuket zer atseginekin entzuten dudan zure solasa; othoizten zaitut aintzina eman dezozun orai arteo bezala.

**BASILIO.** Atsegin handirekin emanen diot aintzina, hala nahi duzun geroztik.

Abereen gaitzik gehienak artha eskasetik ethorri ohi dira.

Bustia da abereentzat, guretzat bezala, etsairik handiena.

Nola belhar bustiak hantzen baititu, hala etzaunta bustiak ditu eritzen.

Horrengatik, urthe uritsuetan, idor puxka bat jatera eman behar zaiote, eta ahal bezain guti igorri behar dira alhara.

Oroz-gainetik azpiak idor iduki behar zaizkote.

Aberezale ez den laboraria, ez da laboraria; zeren abererik gabe ez da ongarririk, eta ongarririk gabe ez da biltzerik.

Bertzalde berriz, bazkarik gabe ez da abererik.

Bazkak, aziendak eta lant-lurrak neurri berean izan behar dute.

Nihork ez daki zenbat eman dezakeen lurrak.

Erran ohi da egia handirekin, hartzen duen bezenbat ematen duela.

Lurrik hobekienik lanthua da gehienik phorrokatua dena.

Laborariak, ahal badu, ez du lur alferrik iduki behar.

Azienda heian egonago, eta hobea da; zeren ongarririk gehiago izanen baitu laborariak.

Ez du lurrak aberearen hatza baino etsai handiagorik; behintzat buz-tin-lurrak diren tokietan.

Nausiak etxetiarrari lurrak estatu onean eman behar diozka; bertez naz ez du hunek lan onik eginen.

Badira denborak eta aroak iragaitera utzi behar ez direnak, ala eraiteko, ala jorrazteko eta ephaiteko.

Horrengatik laborariak, ona izatekotz, esku-gaina behar du; zeren aroa iragaitera uzten badu, lan txarra eginen baitu; eta aroa iragaitera ez uzteko jorraltiarrak batzuetan behar dira.



## Hamalaugarren solastaldia

**ANTONIO.** Zer egia handiak erran dituzun gure azkeneko solastaldian!

**BASILIO.** Nausiek ezagutu behar lukete gauza bat:

Etxetiarra indarretan balinbada, on baizik ez dela nausiarentzat.

Nausiaren, etxetiarren eta lurrentzat hoberena da bazterrak errentan izatea; ez dirutan, baizik ere bihi partean.

Dirutako errenta kobratzen gaitza da, eta ez da zuzena.

Zuzenari bidegabe egiten dio, zeren bihiaren prezioak makhur handiak baitabilzka.

Makhur hoiek eta bihi dirutzeak ez dira etxetiarrantzat gauza.

Azienda berea izateak indar handia ematen dio nekhazaleari, bainan sagardiek eta gaztandiek egon behar dute erdizka, zeren asko urthez ez baitute den gutiena ematen.

Bazter-etxetako jabeek behar lukete elkhar aditu eta suaren kontra konfardiak egin.

Orobat egin behar lukete azienda-jabeek haukietarik bat edo bertze hiltzen zaioteneko; bertzela erreka joa du laborariak buru bat edo bia galdu orduko.

Nola gerthakari txarraz nihor guti orhoit baita hel dadien artean, hunelako gauzetan bortxa erabil dadien premia da.

Bertze horrenbertze izaten da herri edo hauzo lanetan.

Hekiek dira guzientzat on diren lanak, bainan nihork ez luke hekie-taz axolarik hartuko, baldin bortxaz eginarazten ez balira.

Konfardiak dira gauzarik hoberenak estrapuei buru egitekotzat.

Badira, etxe eta aziendentzat bezala, uholde, harri eta bertze helkari gaixtoentzat ere.

Herri batean berrehun etxalde balinbadira, etxeko-jaun bakhotxak hamabortz libera ematearekin, etxe berria izanen da.

Zenbatenez ere etxeko jaun gehiagoez elkhar hartuko baitute; eta hanbatenez bakhotxak gutiago eman beharko du.

## Hamabortzgarren solastaldia

**BASILIO.** Zeren gainean ihardukiko dugu arretsalde hunetan?

**ANTONIO.** Zuk nahi duzunaren gainean.

**BASILIO.** Erran izan darotzut lehen ere azienda gu geroni bezain minbera dela, non ez den basa.

Orai erranen darotzut janharria ahalaz eman behar zaiola egosirik.

Hainitez hobeki ehaiten du, bereziki gatz pixka batez ontzen bazaio.

Jadanik badakizu gatza zenbat zaioteten lakhet azienda mota guziei.

Noizean behin izpi bat ematearekin, asko gaitzetarik begiratzen dira.

Damurik da gatza izan ohi den bezain garasti.

On handia egin lezoke egun oroz liphartto bat aziendari; zeren ematen baitu jateko gogoa eta janaren ehaiten hainitz baitu laguntzen; eta bertzalde oraino indar handia da lurren ontzekotzat.

Badakit jana egostea eta abereei gatza ematea gauza garastia dela; bainan on da jakitea, bereziki azienda eri denekotzat.

Deusek ere ez du aziendak baino irabazi hobia ematen.

Horrengatik jakiteko da zer duen on eta zer ez.

Erran izan darotzut jatera guti eta maiz eman behar zaiola.

Nahi duela garbitasun handia eta etzauntza idorra.

Ahalaz begien azpian iduki behar da, zer gertha ere, eta izipera delakotz.

Bada asko abere mota.

Zihotsu den mota, eta haragitsu dena.

Badira behiak jaten duten guzia esnetan ematen dutenak.

Orobat gerthatzen da azienda xurietan.

Batzuek dute ile ona eta haragi txarra, bertze batzuek haragi ona eta ile txarra.

Batzuei gizenak ematen diote buztanera, zeinak pisu baitu hogoi eta bortz liberetaraino.

Bildotsak izan ohi du aitaren ile mota eta amaren haragia.

Errana da, belhar motxa den tokian azienda xehea dela, eta belhar luzea den tokian azienda larria.

Ephaitza bakhotxean ikhusteko da zein abere mota den hangotzat on.

Patarrak eta erroizuak diren aurkhintzetan azienda larria ez da on; zelhai-ordokietan berriz, xehea baino hobia da.



## Hamaseigarren solastaldia

**BASILIO.** Ez dio deusek ere irabazi gehiago ematen nekhazaleari aziendak baino.

Horrengatik behar da artha handi bat haren osasunaz.

Behar ere da jakin zer zaioen egiteko eri denean.

Sangrea, purga, erregaiak eta zurda dira sendakariak gaitzik gehientzat.

Laborariak abere sangratzen jakin behar luke ordu hestuetako.

Orobat jakin behar luke zer belharren ura den on purgatzekotzat.

Gisua da errekaririk hobeena, eta zurda baten ezartzea ez da gauza gaitza.

Izerditan denean aberea estali behar da, bereziki heia hotza balinbada.

Bazka bustia balinbada, idortzera utzi behar da.

Aberea berotua edo izerditan badago, etzaio edatera eman behar, bereziki ura gordina bada berenez.

Eri bada eta gizena delarik, sangratu behar da berehala.

Biharamunean nahi du sangratu eta janhari hurrian egon.

Dieta eri den aziendarentzat hain premia da nola gu gerorrentzat.

Eta sendakari guzien artean hauxe da hobeena eta segurena.

Bereziki bulharretako gaitzentzat eta marhantentzat.

Abere eriak egon behar du toki gerizatuan eta etzauntza idorrean.

Deusek ere ez du gaitz gehiago ekhartzen bustiak eta haize lasterrak baino.

Izertu ondoan, ez da jarri behar hunelako haize lasterrean.

Piko, zauri eta kaskakoentzat, ez da ura baino sendagarri hoberik.

Hekien sendatzekotzat aski dute oihal batez estali eta maiz hezatzeta.

Errearentzat berriz, ur freskoa da erremediorik hobeena.

Erre bezain laster, alderdi errea ur hotzean sarthu behar da.

Zauri zaharkitu, ezkabia eta mota gaixtoko zaragarrarentzat, ikhatz herrautsa da hainitz on.

Errekariak, zurda eta xira sendagailu on batzu dira bulharretako eta begietako gaitzentzat.

Bai eta urdailekoentzat, ithurri eta bertze gaitz batzuentzat ere.

Eritasun <...> nahi dute dieta handia eta hainitz denbora.

Askotan mainhu bustiak eta mainhu idorrak ere hainitz on dira.

Ithurriak, lupuak eta honelako bertze trunpiloek mantharraz beratu behar dute.

Trunpiloak berenez hotzak balinbadira, hobeena da ebakitzea edo erretzea.

Ahal den guzian deithu behar da bethi abere sendatzailea.

Abereak eri direnean, heia nahi da xuritu eta gisu bizia han berean hil urarekin.



## Hamazazpigarren solastaldia

**ANTONIO.** Nahi nuke jakin nola egiten den burra ona.

**BASILIO.** Burra ona egitekotzat, abereari eman behar zaio bazka ona eta idorra.

Bihi ekhartzen duten belharretan, oloa da esne gehienik eta gain hobeena egiten duena.

Gauza ikhusia da gaina ona bada, burra ere hala izanzen dela.

Belhar xehea eta samurra, trefla eta faruxa hainitz onak diraazienda bazketako.

Orobat diot ogi-ondoko belharragatik, bustia ez delarik.

Burra egiteko lekhuak izan nahi du ipharreko eta mendebaleko artea begiz jarria.

Behar du izan zabala eta gora eta leiho hainitzekin, haizea barnean erabil dadientzat errexki.

Azpiak izan behar du lauzatua, freskoago eta garbitzen errexago izanzen delakotz.

Burra egiten den aldi bakhotxean, behereak garbitu behar du urarekin.

Eta ur hunek ilkhi behar du, hortarakotzat eginikako erreka batetik.

Bertzela lurrera erortzen diren ur xortak usteltzen dira eta usain gaixtoa ematen diote burriari.

Burra egiten den lekhuak ez da izan behar den gutieneko usain tzarrik.

Lurrezko untzi bernizatuak dira hobeena burra egiteko eta begiratzekotzat.

Abereak daitzi behar du ahal den garbitasunik handienarekin.

Berezi behar da gaina eta ezarri untzi batean garratz-iduri gozo bat har dezan arteo.

Orduan ezartzen da burra-untzian eta erabiltzen da, joz phalote edo makhila batekin.

Zenbat ere izanzen baita gain gehiago eta zalhukiago erabili beharko da.

Burra egina denean, untzitik atheratzen da eta urean garbitzen art-harik handienarekin.

Hortarakotz, urik hobeena da burdin-ura, zeren kolore eder bat ematen baitu.

Hala-nola sufre-ura baita hautena baratze-karien egostekotzat.

## Hemezortzigarren solastaldia

**ANTONIO.** Atzo irakhatsi zinerotan nola egiten den burra.

**BASILIO.** Beraz ikhasi behar duzu egun nola egiten den gasna.

Hasteko, irazten da esne daitzi-berria.

Gero botatzen zaio kollir bat gatzagi zazpi laurden esneentzat.

Ongi nahasi ondoan, idukitzen da ber epheltasunean.

Hortakotzat ingura daiteke, nahi bada, hauts berroz.

Gatzatu den ondoan, xukhaderan ezartzen da.

Toki beroskoan ematen bada, lehenago eta hobeki xukhatzen da.

Zenbategi ere gehiago xukhatzen baita, hanbatez gasna hobe izanzen da.

Ongi xukhatu ez den gasna gazikara gelditzen ohi da.

Hogoi eta lau orenen buruan, ezartzen da lasto edo zumeen gainean.

Hola uzten da bospasei egun, ongi xukha dadientzat.

Gero gazitzen da alde batetik, emanez untza bat gatz gasna liberako.

Gatz hau ongi urthu denean, gazitzen da bardin bertze aldetik.

Gazitzen dagoeno, egon behar du lekhu idor eta haizetsuan.

Zortzi egunez gazitzen utzi ondoan, eskuz garbitu behar da ur erdi-beroan.

Eskua iragan behar zaio gainetik, azpitik eta sailhetsetarik.

Zortzitik zortzira egiten da lan bera, baldin gasna sobera idortzen bada edo mutxitzen hasten bada.

Hamabortz edo hogoi egunik barnean gasna horitzen da.

Sartzen da gero eltze edo turrisa batean eta xaian uzten da.

Zortzitik zortzira ikhusi behar da heia mutxitzen abiatzen denetz.

Hasi bada, garbitu behar da lehen bezala ur erdi-beroan.

Esnea bi daitzalditakoa balinbada, nahi da ongi nahasi batean.

Uliek gasnan ez detzaten egin beren arroltzeak eta harrak sor ez ditezientzat, huna zer egiten den asko lekhotan.

Batzuek erretzen dituzte hezurak eta hekien hautsa ematen diote gasnari.

**ANTONIO.** Ez dira lanik gabe.

**BASILIO.** Jakizu bada gauzak balio duela ematen zaioen artha.

Artha gabe ez da gauza onik.

Eta mundu huntan gerthatzen diren gaizki-heltze gehienak artha gabetasunetik ethortzen dira.

**ANTONIO.** Hori baditake.



## Hemeretzigarren solastaldia

**ANTONIO.** Nekhazalearentzat zein da, abere motarik hobeena?

**BASILIO.** Ordokietan, abere handia; eta ttipia mendietan.

Gainerakoan idia, ona izateko, behar da irazkiz gora eta luze.

Izan behar ditu saihets-hezurak zabal, larrua lodi eta ez haragiari josia.

Zezenak izan behar ditu sorbaldak zabal, lephoa lodi eta junta motzak.

Ixterrak eta belhaunak biribilak, ixtapea idekia, ilea murrirtza eta lodia, bainan gozoa;

Bustana gora, luzea eta ongi zurdaturia, adarrak lodiak eta zuriak.

Behiak izan behar du larria, adarrak zabalduak kopeta zabala eta sabela nasaia.

Adarrak izan behar ditu legunak eta argiak, errapea zuria, handia eta ez haragitsua.

Gainerakoan, behia nahi da zezenaren idurikoa.

Azienda erosterakoan, badagoko ongi begiztatzea heia hortzik gabe denetz, ahul dadien beldurrez.

Behi beltzak izan ohi dira ttipiak eta bertzeek baino esne gutiago ematen dute.

Bainan ematen dute bethi eta gogorrakoak dira lanekotzat.

Behi zuriak handiagoak dira eta ematen dute esne gehiago, bainan ez hain luzaz.

Gorriak dira handiagoak oraino eta esne gehiago ematen dute, bainan iraupen laburragoan.

Horrengatik dira hobeak behi beltzak, esnea luzezagoz ematen dute-lakotz.

Bertzalde, behi beltzak ume-egileagoak dira bertze koloretakoak baino.

Ez da zezenera behirik eraman behar hiru urthe bethe ditzaten arteo.

Erajero eta Uztail artea da hortakotzat arorik hobeena behi bat bai-zen ez duenarentzat.

## Hogoigarren solastaldia

**ANTONIO.** Ezin sinhets zinezake zeinen atsegin handia dudan zure entzuteaz.

**BASILIO.** Ez duket gutiagoa ikhustez zeinen zaren boztua.

Bildotsik hazkarrenak dira biritxiak eta haukiek dira ume-egitekotzat begiratu nahi direnak.

Urde ahardi onak ez ditu behar hamabi dithi baizik; hamar dituen da ume hazteko hobeena.

Akhetsak eta ahardiak izan behar dute hamabi hilabetez goiti ume-haztekotzat.

Bortz urthe bethez geroz, akhetsak xikhiratu ohi dira.

Haukien xingarra goriago, gogorrago eta gozoagoa da urde xikhira-tu-gabeena baino.

Lehenbiziko egunetan, xerriari guti eman behar zaio jatera, zeren goseak lagun-etsia harrarazten baitio.

Konexu emea hilabete bat egoten da ernari.

Sei aste behar ditu umeen hazteko.

Hala bi hilabete guziz umeak ekhar detzazke.

Xikhira ditzazke umeak sei astetan eta ezar lekhu hertsu batean.

Handitzen dira hainitz, eta belhar usain oneko zerbaite ematen bazaiote hil-aintzinxean, haukien haragiak biltzen du gozotasun bat hainitz ona.

Hil ditzazke hiru hilabetetan.

Etzaiote eman behar aza historik, zeren haragiari hainitz khino tza-rra ematen baitio.

On da ematea noizean-behin zahi bustia, bihi liphar batekin nahas-tekaturik.

Oroz-gainetik galdegiten dute garbitasun handia.

Larrurik hobeena da zilharkakoa.

Gero zuria edo beltza eta azkenik horasta eta nabarra.

Angolako izena dakhartenek dute larrurik hautena.

Hil behar dira lau edo bortz urthe egin izan dituztenean.

Ume-egitekotzat martxoan sorthuetarik begiratu behar da.

Orots bat aski da hamar urrixentzat; bainan orotsak berez egon behar du.

Umeketako diren urrixek orobat berez egon behar dute.



## Hogoi eta batgarren solastaldia

**BASILIO.** Egungo solasa ez da, ene ustez, izanen atsegirik gutiena eginen darotzuna.

**ANTONIO.** Guziak aurkitzen ditut bata bertzea baino atsegingarriagoak.

**BASILIO.** Asko tokitan ez da, ez eltzeko, ez argitako, heltzaurraren olio baizik.

**ANTONIO.** Jainkoari esker ez dugu hemen holako erromeseriarik.

**BASILIO.** Halarik ere on da jakitea orai erratera nohakizuna.

Olio egiten da heltzaurrekin, hurrarekin eta fago-hezkurrekin.

Bai eta ere egiten da koltza deitzen den harbi mota baten haziarekin.

Orobat egin daiteke bertze edo-zein hazi motarekin.

**ANTONIO.** Eta horiek guziak onak dira eltzekotzat?

**BASILIO.** Ez, batzuek ez dira on argitako baizik.

Liho haziz egiten den olioak hainitz usain tzarra du eta ez da pintatzekotzat baizik ona.

**ANTONIO.** Eta nola egiten da olio?

**BASILIO.** Huna nola: hartzen da heltzaur ongi onthuaren mamia.

Ez du heltzaurrak zaharra izan behar.

Xurruan xehatzen da mamia eta irazten zurdasko bahe batean.

Inguratzen da zurdazko oihal tinko batean.

Prentsan ezartzen da eta ematen du bere gozoa.

Berri-berrian da olio hau hobeenik, nahiz gordinik jateko, nahiz eltzekotzat.

Bainan ez da zahartzera utzi behar, laster galtzen delakotz.

Horrengatik, aldian guti egin behar da, berririk jan dadientzat.

Gelditzen den phatsa ihinzatzen da eta prentsan berriz ezartzen.

Lan bera egiten da hiru aldiz.

Bigarren aldian atheratzen den olio ona da zarthaginako eta argitako.

Fago-hezkurrak, hurrak eta haziek ur ephelean beratu behar dute.

Azala khendu ondoan, jotzen dira xurruan.

Mulkora biltzen dira eta orhe bat egiten da.

Orhe hau berotzen ezartzen da hauts beroaren gainean tirrisa batean.

Gero ezartzen da prentsan zurdazko oihalean inguraturik.

Fago-hezkurraren olio hainitz ona da, gordinik jateko bezala eltzekotzat ere eta zarthaginakotzat.

Bainan ont dadientzat, behar ditu bi edo hiru urthe gutienetik.

Eta hortarakotzat ezartzen da lurrean tirrisa batean edo korkoiletan.

Bortz laurden hezkurrek ematen dute hiru laurden olio.

Hurraren olio ez da hain ona, non ez den argitako.

Indietako gaztainaren ura hainitz ona da arropa garbitzekotzat.

Bi gaztaina aski dira laurden bat urentzat.

Mamia behar da xuritu, harraspatu eta ur beroan iduki hogoi eta lau orenez.

Nahasi behar da noizean-behin, pausatzera utzi eta irazi.

Ur hunekin ederki garbitzen dira arropak.



## Hogoi-eta-bigarren solastaldia

**BASILIO.** Egun bertzelako gauzaz iharduki behar dugu.

**ANTONIO.** Nahi duzun bezala; zeren nolanhikoa izan dadien zure solasa, izanen da bethi atsegingarria.

**BASILIO.** Badakizu nola sortzen diren hedoiak?

**ANTONIO.** Askotan ikhusten ditut ilkhitzen erreka eta hibaietarik, bertze aldi batzuz lur bustitik, eta gehienez itsasotik.

**BASILIO.** Zerk hunela atherarazten ditu?

**ANTONIO.** Iguzkiaren berotasunak, ene ustez.

**BASILIO.** Hala da, eta, dakizun bezala, hedoiak dira uri bihurtzen direnak.

Uritik sortzen dira ithurriak eta errekek, eta haukietarik hibaiak.

Hibaietarik dohazi itsasora denborarekin hedoi bihurtzeko.

**ANTONIO.** Beraz itsasoko urak bethi horrela dabilta inguru-inguru arroda bezala.

**BASILIO.** Dudarik gabe, eta diotenez, hau bera gerthatzen da iguzkiarekin.

Emozu buruari iguzkia argizko itsaso bat dela.

Handik atheratzen den argia hara itzultzen da berriz ura itsasora bezala.

Errex da orduan aditzea nola itsasoa eta iguzkia dauden bethi hein berean.

Lurraren barnean aurkhitzen dira gauza mota guziak, eta beroaren bidez igaiten dira bafaden artean.

Bafada hekietarik heldu dira simistak eta ihurtzuriak.

**ANTONIO.** Egiazki harrigarriak dira niri erraten darozkidatzun gauzak.

Zer dira beroak lurretik eraikitzen dituen gauza hekiek?

**BASILIO.** Bertze askoren artean, nitrea eta sufrea, zeinetaz egiten baita bolbora.

**ANTONIO.** Ez dakit nitrea zer den.

**BASILIO.** Nitrea da gatz mota bat.

Eta badakizu non aurkhitzen den gatza?

**ANTONIO.** Ahalkatzeko gauza da, bainan aithortu behar dut ez dakidala.

**BASILIO.** Gatza, harria iduri, aurkhitzen da lur-axalean eta luphean.

Aurkhitzen da urarekin nahasia ithurrietan eta itsasoan.

Lurraren gainean atzematen dena deitzen da gatz-harria.

Hau atheratzen da harria harrobitik bezala.

Ithurrietakoa eta itsasokoa atheratzen da ura berotuz edo irekitaraziz.

Ura luzez berotu-eta, uzten da hoztera eta gatza ondoan gelditzen da.

Toki beroetan, uzten da ura, itsasoa gora delarik, sartzera zolagune zelhaietan.

Hersten dituzte sarbideak eta iguzkiari uzten diote egitera suaren lana.

Zelhaia gelditzen da gero gatzez zuritua elhurra egin izan balu bezala.

Gatza luphean aurkhitzen den lekhetan, egiten dira phutzuak eta harat eramaten da erreka bat hekiek urez bethetzekotzat.

Ura gazitzen da, atheratzen dute eta berotzen, edo suarekin, edo larrainetan iguzkiarekin.

Iguzkiaren bidez egiten den gatza hainitez merkeago heldu dela gauza ikhusia da.



## Hogoi-eta-hirugarren solastaldia

**BASILIO.** Badakizu nolako zartakoa egiten duen gatzak suan. Bada bolbora ez da deusere bertzerik ezen gatzak.

**ANTONIO.** Bizkitartean gatzak zuria da eta bolbora beltza. Nahi nuke jakin zerekin egiten den bolbora.

**BASILIO.** Erratera nohakizu.

Nitrea lurrarekin nahasia aurkitzen da eta lurra bokhetatzen da.

**ANTONIO.** Bainan nola egiten bokheta hori?

**BASILIO.** Ezartzen da lurra edo herrautsa saski batean, gain-behera ematen zaio ur irakitura, eta hunek urtharazten du nitrea eta berekin bada-ramaka.

Ur hau deitzen dute lixiba, eta hoztu denean, nitrea gelditzen da ondoan.

Zenbat eta gehiagotan irakitaraziko baitiote urari, hanbat ere indar gehiago izanen du nitreak.

Bainan gehiago gostako da, zeren irakitaldi baxhotxean ur garbia behar baitu.

Ez da dudarik, zeren aldi oroz nitrea gutituz baitoha eta su gehiago behar baitu.

Hargatik nitrea zenbat ere finago eta hanbat balio gehiagokoa da.

Nitreari sufre liphar bat botatzen zaio xurrura eta jotzen dute orhe egina izan dadien arteo.

Gero ematen zaio ikhatz herrauts pixka bat eta jotzen da berriz luzeki.

Azkenekotz bahatzen da zurdazko bahe batean eta egina da bolbora.

Orai hortarik adituko duzu nola ditazkeen ozpina, simistak eta ihur-tzuriak.

Beroaren hatsarekin igaiten dira lurretik eta itsasotik gatzak, sufrea eta bertze asko gauza.

Horiek guziak elkharrekin nahastekatzen dira eta su hartzen dute.

Horra zer den ozpina; ez da beraz harritzeko harek egin ohi dituen zathikatzeaz.

**ANTONIO.** Hunek erran nahi du ozpin baxhotxa kanoi-peza ukhal-di bat bezala.

**BASILIO.** Hala da.

Badakizu horma ez dela ur gogortuaz bertzerik. Gauza bera da babazuzaz, elhurraz eta gatzaz.

**ANTONIO.** Bizkitartean batzuek iduri dute bertzeak ez bezalakoak.

**BASILIO.** Bai, zeren bertze zerbait gauzarekin nahastatuak baitira.

**ANTONIO.** Eta zer da lur-ikhara? Edo nondik heldu da?

**BASILIO.** Hori gauza jakina da ikhusiz geroztik lurra dagoela gatzaz, sufrez, eta bertze hunelako gauzaz bethea.

**ANTONIO.** Horrek erran nahi du lur-ikhara lupheko ozpinak egiten duela.

**BASILIO.** Bai eta ere garmendiak. Garmendia deitzen da sua botatzen duen mendia.

**ANTONIO.** Ondikozko kalteak heldu bide dira lur-ikhara eta garmendietarik.

**BASILIO.** Hiriak erauzi eta hondatzerainokoak.

Lupheko ura iragaiten bada gatzak den tokitik, gazia atherako da ithurritik; sufretsua, iragaiten bada sufretik, eta beroa, sua den lekhitik iragaiten bada.